



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.07.28an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
MARIA UBARRETXENA CID
ANDER GARAY ZABALETA
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ARITZ MURUA ACHA
GORKA ARTOLA ALBERDI

ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2020ko uztailaren 28an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenean ezarritakoarekin bat etorrituz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura honetara hainbat Juntakide bideokonferentziaren bidez konektatu dira, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DITU 2020ko ekainaren 16an egindako ohiko bilkurako eta ekainaren 29an egindako bilkura bereziko akten zirriborroak.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2020ko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa

Hondakin bilketa zerbitzuko atoiak eramateko baimen berezi bat behar dela eta, Ingurumen Zerbitzuko arduradunaren proposamena jarraituz, langileen ordezkarien adostasunarekin, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 2020ko Lanpostuen Zerrendaren aldaketari hasierako onespina ematea, aurtengo Enplegu Publikoko Eskaintzan sartuta dauden txofer-zamaketari 4 lanpostuei, atoi eramanez ahal izateko, CAP eta gidatzeko C gidabaimenez gain, baimen hauetakoren bat eskatuz: B+E edo C+E edo C1+E edo D+E edo D1+E, eta aldaketa espedientea 15 lanegunez jendaurrean ikusgai uztea, eta behin betiko onartutzat jotzea, baldin eta denboraldi horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten.

2.2.- Hainbat behin betiko berme bueltatzea

Ondoren zehazten diren behin betiko bermeak itzultzeko espedienteak ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- Ondorengo bermeak itzultzea:

1.- Enpresa: BILBOTRUCK, S.L.

Kontratua: Edukiontzia eramateko ibilgailu batez hornitzeko kontratua. (2019).

Zenbatekoa: **3.740 €.**



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.- Enpresa: APPLUS NORCONTROL, S.L.U.

Kontratua: Epeleko zabortegian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak kontrolatzeko kontratua. (2019).

Zenbatekoa: 2.000 €.

2.3.- Datu Pertsonalen Babeserako agiriak onartzea

Datu Pertsonalen Tratamenduari dagokionez Pertsona Fisikoen Babesari eta Datu Horien Zirkulazio Askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua betetzeko helburuarekin, Mankomunitateko Gobernu Juntak, 2018ko azaroaren 20an egindako bilkuran, NEXTEL, S.A. (orain S21SEC) enpresari esleitu zizkion Mankomunitatean aipatu Erregelamenduaren eta Segurtasun-Eskema Nazionalaren ezarpen lanak.

Aipatu enpresak burutu du bere lana eta, beste hainbat agiriren artean, bi hauek prestatu ditu:

- Informazioaren Segurtasun Politika.
- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra betetzeko Araudi Orokorra.

Bi agiri hauek irakurri ondoren, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Pertsona Fisikoen Datu Pertsonalen babeserako Mankomunitatean aplikatu beharreko bi agiri hauek onartzea.

3.- INGURUMENA

3.1.- Papera eta kartoia saltzeko ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2017ko irailaren 25ean sinatu zuen Mankomunitateak ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresarekin edukiontzi urdinetan, atez ate, denda eta industrietan eta Garbiguneetan jasotako papera eta kartoia saltzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da urtebeteko iraupena izango duela, 2017ko urriaren 1etik aurrera, eta bi aldeen adostasunez urtero luzatu ahal izango da, gehienez ere 8 urtez, hasierako aldia ere barne.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua beste urtebetez luzatzea, hau da, 2021eko irailaren 30 arte.

3.2.- Mankomunitateko udalerrietako hondakinak bildu eta garraiatzeko UTE DEBAGOIENA 2017 aldi baterako enpresa elkartearekin sinatutako kontratua luzatzea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2017ko irailaren 25ean sinatu zuen Mankomunitateak UTE DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin 8 udalerrietako hondakinak bildu eta garraiatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da hiru urteko iraupena izango duela, 2017ko irailaren 30aren 22:00etatik aurrera, eta bi aldeen adostasunez urtebetez, bi alditan, eta 6 hilabetez, azkeneko aldian, luzatu ahal izango dela, gehienez ere 5 urte eta 6 hilabetez, hasierako aldia ere barne.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2021eko irailaren 30aren 22:00ak arte.

3.3.- Eraikuntza eta eraispen hondakinak kudeatzeko kontratazio espedientea; eskaintzen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2020ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, garbiguneetan eta bestelako bilketa zerbitzuetan jasotako obra txikietako eraikuntza eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio-Klausula Berezien eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean ondorengo proposamenak aurkeztu ziren:

1 lotea, harri hondakin hautatuak

1. BAÑU-ETXE, S.L.
2. NAPARRA BERGARA, S.L.

2 lotea, EEH ez arriskutsu nahastuak

1. BAÑU-ETXE, S.L.
2. NAPARRA BERGARA, S.L.

Bi proposamen hauen B gutun-azal elektronikoan jasotako dokumentazioa aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak, BAÑU-ETXE, S.L. enpresak 1 loterako aurkeztutako proposamena baztertzea erabaki zuen Baldintza Teknikoen Agiriaren 5. klausula ez betetzeagatik. Beraz, proposamen bakarra gelditu da 1 loterako.

2 loterako proposamenen "B" gutun-azal elektronikoan jasotako dokumentazioa balioetsi ondoren, Kontratazio Mahaiak onartutako proposamenen "C" gutun azal elektronikoak ireki zituen, eskaintzak segida beherakorrean sailkatuz, Administrazio Klausula Partikularren Pleguan jasotako irizpideen arabera.

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, ZERA ERABAKI DU:

1. Proposamenen ondorengo sailkapena onartzea:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

1 lotea, harri hondakin hautatuak

Baldintza guztiak betetzen dituen proposamen bakarra: NAPARRA BERGARA, S.L.

2 lotea, EEH ez arriskutsu nahastuak

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>B sobrea</u> <u>Balio judizio baten mende dauden irizpideak</u> 50 puntu	<u>C sobrea</u> <u>Proposamen Ekonomikoa</u> 50 puntu	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	BAÑU-ETXE, S.L.	17	50	67 puntu
1	NAPARRA BERGARA, S.L.	19	29,38	48,375 puntu

2. Saikapen honen arabera, 1 loterako NAPARRA BERGARA, S.L. denez baldintza guztiak betetzen dituen proposamen bakarra eta 2 loterako BAÑU-ETXE, S.L. enpresak aurkeztutako proposamena denez ekonomikoki onuragarriena, aipatu enpresei hamar egun balioduneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 19. 5 klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.

3.4.- Epeleko hondakin ez arriskutsuen zaborregian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko kontratazio espedientea; eskaintzen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2020ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Epeleko hondakin ez arriskutsuen zaborregian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio-Klausula Berezien eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean ondorengo hiru proposamenak aurkeztu ziren eta hirurak onartu ziren:

1. INGENIERÍA DE GESTIÓN INDUSTRIAL, S.L.U.
2. TEKNIMAP ENERGIA Y MEDIO AMBIENTE, S.L.
3. EUROCONTROL, S.A.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak proposamenen "B" gutun azal elektronikoak ireki zituen, eskaintzak segida beherakorrean sailkatuz, prezioaren arabera, hau baita esleitzeko irizpide bakarra.

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, ZERA ERABAKI DU:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

1. Proposamenen ondorengo sailkapena onartzea:

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Prezioari dagokion puntuazioa (0-100)</u>
1	EUROCONTROL, S.A	100 puntu
2	TEKNIMAP ENERGIA Y MEDIO AMBIENTE, S.L.	61,309 puntu
3	INGENIERÍA DE GESTIÓN INDUSTRIAL, S.L.U.	45,073 puntu

2. Sailkapen honen arabera, EUROCONTROL, S.A. enpresak aurkeztutako proposamena denez ekonomikoki onuragarriena, aipatu enpresari hamar egun balioduneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 19. 4 klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa

- **Eskaera berri bat: J.M.B.**

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: janarien etxez etxeke banaketa.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- J.M.B. ekintzaileari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (1-ZM) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- **Luzapen bat: E.O.I. (Dolulaguna)**

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Urtebetez, hau da, 2021eko irailaren 6ra arte, luzatzea Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 4-AR zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, E.O.I. ekintzaileari emana, Gobernu Juntaren 2018ko uztailaren 17ko erabaki bitartez.

4.2.- Mankomunitatearen Nafarroa Etorbidea 21eko instalazioak ARIZMENDI KOOP. ELKARTEari “Oinarrizko Lanbide Heziketa” Programa garatzeko dohainik erabiltzen lagatzeko hitzarmena

Lanbide Hastapena derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulazioa lortu ez duten ikasleei lanerako prestakuntza eman eta gizartean txertatzen laguntzeko helburuekin garatutako programa da. Debagoieneko Mankomunitateak Lanbide Hastapeneko ikastaroak antolatu izan ditu 28 urteetan, 2015era arte.

Debagoieneko Mankomunitateak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko laguntzarekin, programa garatzeko baliabideak eta finantzazioa landu eta bermatu ditu urte guzti horietan. Urte horietan programak ezagutu duen bilakaera aipagarria izan da, horrela prestakuntza ez arautua izatetik, arautua izatera pasatu da eta baliabide eta Mankomunitateak egindako inbertsioei esker, kokapen ezegokiak izatetik egoitza egokitua eta ondo hornitua izatera bidea egin du.

Azkeneko urteetan Lanbide Hastapena “Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa” izenarekin ezagutu dugu eta LOMCE legearen onarpenaren ondoren, Eusko Jaurlaritzak orain arteko “Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa” “Oinarrizko Lanbide Heziketa” izena duen programagatik ordezkatu zuen. Izen ezberdinekin bada ere, urte guzti hauetan, programak, 16-18 urte tarteko prestakuntza gabeko gazteak lanbide heziketaren bidean jartzeko eta gizartean txertatzeko ahalmena soberan demostratu izan du.

Debagoieneko Mankomunitateak hasieratik garatu du Programa hau eta lehenengo hiru urteetan ezik, gainontzekoetan Programa hau antolatu, kudeatu eta garatzeko zerbitzua kontratatu du. Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, azkeneko urteetan Arizmendi Koop. Elkarteak izan da kontratu honen esleipenduna, horretarako Debagoieneko Mankomunitateak egokitutako eta hornitutako instalazioak erabili dituelarik.

2015ean, Hezkuntza kalitatea hobetzeko Legean “Oinarrizko Lanbide Heziketa”ri buruz jasotakoaren arabera, Mankomunitateak ezin izan zuen programa garatzeko beharrezkoa den Jaurlaritzaren baimenik jaso. Ondorioz eta programaren jarraipena arriskuan egonda, eta horrek, programak zerbitzua ematen dien eskualdeko gazteentzako suposatuko lukeen kaltea eragotzi nahian, Mankomunitateak, ordura arte Programa hau kudeatu zuen Arizmendi Koop. Elkartearekin hitz egin zuen, eta bi aldeek adostu zuten ondorengo ikasturteetan OLHko maila bakoitzeko tailerrak antolatzeko eta kudeatzeko Arizmendi Koop. Elkarteak baimena eta kontzertazioa eskatzea, eta Mankomunitateak, aurrez kalifikazio juridikoa aldatzeko zegokion espedientea izapidetuz, Programa hau garatzeko bere instalazio eta ekipamendua dohainik aipatu Kooperatibari lagatzea.

Zegokion prozedura jarraitu ondoren, 2016ko abuztuaren 1ean, sinatu zuten bi erakundeek Mankomunitatearen jabegoko Arrasateko Nafarroa Etorbideko 21. zenbakian kokatzen diren lokal, instalazio eta ekipamenduen erabileraren doako



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

lagapena egiteko lankidetzeta hitzarmena. Lagapen-hitzarmen hau bi ikasturtetarako egin zen (2016/2017 eta 2017/2018). 2018an lagapen hau beste bi ikasturteetarako luzatzea erabaki zen (2018/2019 eta 2019/2020) eta datorren uztailaren 31n bukatuko da.

Aurtengo ikasturtean (2020/2021), eta hurrengoetan ere aipatu Kooperatiba Elkartek kontzertatuko duenez zuzenean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin programa honen garapena, eta kontuan izanda Arizmendi Koop. Elkartea 2002ko urtarrilaren 4an Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuak "Onura publikoko erakundea" izendatu zuela, eta eskualderako hain garrantzitsua den Programa honen jarraipena bermatzeko helburuarekin,

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1.- Arrasateko Nafarroa Etorbideko 21ean kokaturiko Mankomunitatearen instalazioak (tailerrak, ikasgelak, bulegoak, etabar), bere ekipamenduarekin, ARIZMENDI KOOP. ELKARTEAri dohainik erabiltzen lagatzea "Oinarrizko Lanbide Heziketa" programa garatzeko hurrengo beste bi ikasturteetan (2020/2021 eta 2021/2022), ondorengo klausulen arabera:

1.- Lagapenaren helburua

Debagoieneko Mankomunitateak hitzarmen honen eranskinean zehaztutako Arrasateko Nafarroa Etorbideko 21. zenbakian kokatzen diren lokal, instalazio eta ekipamenduen erabileraren doako lagapena egiten dio Arizmendi Koop. Elkarteari, eta honek hartu egiten du hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan.

Debagoieneko Mankomunitateak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko laguntzarekin "Eskolatze Osagarria" programa garatzen du urtero eta horretarako hitzarmen honetan lagatzen diren lokal eta instalazio berberak erabiltzen dira. 2020-21 ikasturtean "Eskolatze Osagarriko" programaren kudeaketa teknikoa ere Arizmendi Koop. Elkartek egingo du, Mankomunitatearekin sinatutako administrazio-kontratu baten bitartez. eta ondorioz lokal eta instalazioen kudeatzaile bakarra izango da. Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Eskolatze Osagarria programek aipatutako baliabideak partekatzen dutelarik.

2.- Lagapenaren iraupena

Lagapen-hitzarmen hau bi ikasturtetarako egiten da (2020/2021 eta 2021/2022), eta 2022ko uztailaren 31n bukatuko da.

Ondorioz, hitzarmen hau automatikoki iraungiko da aipaturiko indarraldiaren bukaeran, onuradunari inolako errekerimendurik egin beharrik gabe, eta lagatutako lokalak, instalazioak eta ekipamenduak onuradunak erabiltzen jarraitzeak ez du inola ere isilbidezko luzatzea inpliketzen. Denboraldi hori igarota, eta bi aldeek horrela nahi badute, beste lagapen-hitzarmen bat sinatu beharko dute.

Beraz, itundutako epea amaitzean, onuraduna beharturik dago lokalak, instalazioak eta ekipamenduak jasotzen dituen egoeran jabetzari itzultzeko.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Lagapen epean egindako hobekuntzak ez dute inongo eskubiderik sortuko onuradunarentzat.

3.- Fidantza

Hitzarmen hau sinatu aurretik, ARIZMENDI KOOP. ELKARTEak 4.000,- €-ko fidantza ordaindu dio Debagoieneko Mankomunitateari hitzarmen honetatik eratorritako betebeharrei erantzuteko.

4.- Arizmendi Koop. Elkartearen betebeharrak

Deskribaturiko ondasunak Oinarrizko Lanbide Heziketa programa garatzeko soilik lagatzen dira. Onuradunak ez balu baldintza hori beteko, hitzarmena suntsiarazita geratuko litzateke eta fidantza galduta, eta baldintza hau, bere garrantzi eta izaeragatik, hitzarmena suntsiarazteko baldintza esplizitua da, ondorio guztietarako.

Hitzarmen hau izenpetzean lagapen-xede diren ondasunak onuradunari emantzat joko dira; onuradunak aitortzen du ezagutzen duela zein egoeratan dauden, eta horregatik ezingo dio Mankomunitateari erreklamaziorik egin.

Lagatako ondasunak baimendutako erabileren arabera erabiliko ditu onuradunak; beharturik dago egoera ezin hobean mantentzera, erabiltzaileek eragindako kalteen erantzule ere bera izango da, eta hartu zituenean zeuden egoera berean itzuli beharko ditu. Onuradunak ezingo du egin eraikinaren egitura alda dezakeen obrarik.

Debekaturik geratzen da hitzarmen honen xede diren ondasunak guztiz edo partzialki beste batzuei lagatzea.

Onuradunaren kontura izango dira lagatako lokalengatik ordaindu beharreko zabor tasa. Aldiz jabetza zergapetzen duten zerga, tasa, kontribuzio eta abarrak Debagoieneko Mankomunitateko kontura izango dira.

Onuradunaren kontura izango dira ezinbestekotzat jotako hobekuntzak eta instalazioen funtzionamendu hobeko lagungarriak direnak, baita horietatik eratorritako zergak, tasak, etab. ere, baina horiek egiteko alde aurretik Mankomunitatearen berariazko baimena lortu beharko da, eta azkenean honen jabetzakoak izango dira. Arau horretatik kanpo geratzen dira onuradunak jarritako altzari edo objektuak, lagapen epea amaitzean erretira daitezkeenak, betiere inolako kalte edo hondaketarik eragin gabe lagatako instalazioetan.

Mankomunitatearen esku geratuko da lagatako ondasunen kontserbazio-egoera une oro ikuskatzeko ahalmena. Kontserbazio egokirik eza aski arrazoi izango da hitzarmena suntsiarazteko.

Onuradunaren kontura izango dira lagatako lokalaren barruan jarduera egitearen ondoriozko gastuak, besteak beste aktibitatea garatzeko kontsumoak (energia elektrikoa, ura, gasa, telefonoa, etab.) Dena den, lagatzen diren lokalak Debagoieneko Mankomunitateko eraikinean daudenez, hornitzaileei



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Debagoieneko Mankomunitateak ordainduko die eta ondoren, izandako gastuak onuradunari kobratuko dizkio.

5.- Erantzukizunak eta aseguruak

Onuradunaren betebeharra izango da lagatako instalazioetan egiten dituen eragiketen ondorioz hirugarrengoei eta Mankomunitateari berari eragiten zaizkien kalte guztiak ordaintzea.

Bestalde, erantzukizun zibileko poliza bat egin behar du onuradunak, lagatako instalazioetan garaturiko jardueraren ondorioz hirugarrengoei eragiten zaizkien kalteentzako aski estaldura izango duena, baita bere arrisku guztiak estaltzeko beharrezko beste poliza guztiak ere (ustiapenerako, izakinatarako, negozioa eteteko... aseguruak).

Onuradunak indarrean mantendu behar ditu aipaturiko aseguruak lagapenaren iraunaldi osoan, urtero ordainduz aseguru-etxeari dagozkion sariak.

Onuraduna izango da beren jarduera eta negozioaren zuzeneko edo zeharkako ondorioz hirugarren pertsoneri edo gauzei eragiten zaizkien kalteen erantzulea zuzenean eta eskusiboki, erantzunbehar orotatik salbuetsiz Mankomunitatea.

6.- Baimenak eta lizentziak

Onuradunak bere kontura soilik lortu behar ditu dagozkion obra-baimenak, baita bere jarduera hasteko eta garatzeko berariazko baimenak ere.

Onuradunak zenbait jarduera Mankomunitatearen berariazko adostasunez egiteak ez du esan nahi Mankomunitateak inolako bermerik ematen dionik beharrezko administrazio-baimen edo lizentziak benetan lortzeari buruz. Beraz, onuradunak ezingo dio inolako erreklamaziorik egin Mankomunitateari baimen horiek ukatu edota gero baliogabetzen badizkiote.

7.- Hitzarmena suntsitzeko arrazoiak

Indarrean dagoen araudian ezarritakoaren kalterik gabe, hitzarmena suntsitzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

- *Bi aldeen arteko adostasuna.*
- *Hitzarturiko epea amaitzea.*
- *Hitzarmen honetan ezarritakoaz bestelako jarduera baterako erabiltzea lokala.*
- *Onuradunak jardueraren prestazioa, hau da Oinarrizko Lanbide Heziketako programa, ez garatzea.*
- *Aldez aurretik eta idatziz Mankomunitateak baimendu gabeko obrak egitea lokalean.*
- *Zorpekoak izatea aseguruaren ordainketan edota horiek estalitako ondasunen azpi-balorazioa.*
- *Indarrean dagoen araudiak jarduera garatzeko une bakoitzean eskatzen dituen baimenak ez izatea.*
- *Lagatako ondasunen kontserbazio egokirik eza.”*



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

4.3.- Autoenplegua bultzatzeko finantzaketa lerro bat ezartzeko MICROBANK-ekin lankidetzaren hitzarmena

Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Beren baldintza ekonomiko eta sozialengatik banku-finantzaketa tradizionala eskuratzeko zailtasunak izan ditzaketen pertsonen zenbateko txikiko maileguak, berme gabekoak, lortzeko aukera emateko, CAIXABANK, S.A. eta MICRO BANK, S.A.U. bankuekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, beraiek proposatutako testuaren arabera.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

20/39.- 20/14 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA HAMAIRU MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMO (53.384,75 €).

20/40.- 20/15 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA LAUROGEITA BOST MILA SEIEHUN ETA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (485.614,36 €).

20/41.- Mankomunitate honetako udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko "UTE DEBAGOIENA 2017" Enpresa Elkartarekin 2017ko irailaren 25ean sinatutako kontratua bosgarren aldiz aldatzeko espediente irekitzea.

Bosgarren aldaketa proposamen hau kontratistari jakinaraztea, alegazioak aurkezteko 10 laneguneko epea emanez.

Legear jasotako prozedura izapidetzea, Mankomunitateko Gobernu Juntak dagokion erabakia har dezan.

6.- GALDE-ERREGUAK

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA